

2007KO URRIAREN 25EKO **OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta zazpiko urriaren hogeita bostean, arratsaldeko seietan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Patxi Albisu Estensoro Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Felix Urkola , Amagoia Naldaiz Mingo, Xanet Barreras Jauregi, M^a Lourdes Garmendia Guerra, Xabier Arrasate Aierbe, Inazio Estensoro Eskisabel, Inazio Barandiaran Aldasoro, Juan Manuel Serna Portugal, Ángel Hernández Marzal, Ricardo Crespo Rubio, Iñaki Saldaña Herrero eta Javier Moreno González de Lara.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

Alkateak esaten du azken unean GOIEKItik administrazio kontseilua hautatzeko alderdi politikoen artean adostutako hautagaien zerrenda bidali dutela eta presazko izaeraz tratatzea planteatzen dela.

Denak ados azaltzen dira.

I.- AURREKO AKTA.-

Jarraian bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2007ko irailaren 27an egindako bilkurako akta.

Saldaña zinegotziak esaten du aktaren gaztelerazko alean IU-V jartzen duela bere alderdia adieraztekoan eta EB-B behar duela.

Gainontzean, akta idatzita dagoen moduan onartzen da, guztien adostasunarekin.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatetzako Ebazpenen berri ematen du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

III.- ARERIA ERAIKIN SOZIO-KULTURALAREN ERAIKUNTZAREN 9. ZERTIFIKAZIOA.-

Areria eraikin sozio-kulturalaren eraikuntza lanen obra zuzendaritza daraman Jose Manuel Elizegi Sarobe arkitektoak lanen bederatzigarren zertifikazioa luzatu du. Bederatzigarren zertifikazio honen zenbatekoa EHUN ETA HOGEITA LAU MILA HIRUREHUN ETA BERROGEITA HAMAZAZPI EURO eta HOGEITA HAMALAU ZENTIMOtakoa (124.357,34 €) da. Lan hauek ARERIA Aldi Baterako Enpresa Elkartea ari da burutzen.

Udal teknikariak zertifikazioa aztertu eta bere oniritzia eman dio.

Honen aurrean, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, Areria eraikin sozio-kulturalaren eraikuntza lanen bederatzigarren zertifikazioa onartzea erabakitzen du.

IV.- ARERIA ERAIKIN SOZIO-KULTURALAREN ERAIKUNTZAREN 10. ZERTIFIKAZIOA.-

Areria eraikin sozio-kulturalaren eraikuntza lanen obra zuzendaritza daraman Jose Manuel Elizegi Sarobe arkitektoak lanen bederatzigarren zertifikazioa luzatu du. Bederatzigarren zertifikazio honen zenbatekoa LAUROGEITA BOST MILA LAUEHUN ETA LAUROGEITA HAMAZAZPI EURO eta BERROGEITA ZORTZI ZENTIMOtakoa (85.497,48 €) da. Lan hauek ARERIA Aldi Baterako Enpresa Elkartea ari da burutzen.

Udal teknikariak zertifikazioa aztertu eta bere oniritzia eman dio.

Honen aurrean, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, Areria eraikin sozio-kulturalaren eraikuntza lanen hamargarren zertifikazioa onartzea erabakitzen du.

V.- ZERGA INFORMAZIOA EMATEKO GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA ETA LAZKAOKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA.-

Udalak, bere zereginak bete eta bere eskumenak gauzatu ahal izateko, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuaren esku dauden hainbat zerga datu eskuratzea oso onuragarria litzatzeke. hau horrela izanik, helburu hori lortze aldera, orain Osoko Bilkura honetara aurkeztu den Lazkaoko Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko hitzarmena izenpetzea proposatzen da.

Osoko Bilkurak, hitzarmen hau aztertu, eskatutako argibideak eman ondoren eta Ogasun Batzorde Informatzailearen proposamenez, aho batez, zerga informazioa emateko Gipuzkoako Foru Aldundiarekin lankidetza hitzarmena, bere espedientean aurkitzen dena, izenpetzea ontzat ematen du.

VI.- O.H.Z. ETA E.J.Z.REN KUDEAKETAREN INGURUAN GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA-REKIN IZENPETUTAKO ESKUORDETZE HITZARMENAK BERTAN BEHERA UZTEA.-

Udal honek, hitzarmen bidez, Gipuzkoako Foru Aldundian eskuordeztuta dauzka Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga eta Ekonomi Jardueren gaineko Zergaren kudeaketaren inguruan, uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauak, zergaren kudeaketa, likidazio, ikuskatzailatza eta zergabiltketarako udalei ematen dizkion eskumenak.

Orain, eta eskuordetzen diren ahalmen horiek udalak berak bere esku hartuta zerga horien kudeaketa gertuagotik eginda eraginkortasun handiagoa izango dutela irudituz, eskuordetza bertan behera uztea planteatzen da.

Gaia aztertu eta eskatutako argibideak ematen dira.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du ados daudela eta gehitzen du zerga horien kudeaketa udalak bere gain hartzen duenean oraingo egoerarekiko konparaziozko azterketa egin dadin gustatuko litzaiekela.

Estensoro zinegotziak (EAJ) erantzuten dio esanez Ogasun Batzordean esan bezala, proposamen honen sorreran udal teknikariek egindako eskaria dagoela eta ez beste inolako kontsideraziorik eta gaineratzen du saiatuko direla komunikazio ahalik eta zabalena ematen eta ahal eta gertuenetik jarraitzen.

Guzti honen ondoren, eta Ogasun Batzorde Informatzailearen proposamenez, Osoko Bilkurak, aho batez, Ondasun Higiezinak gaineko Zerga eta Ekonomi Jardueren gaineko Zergaren inguruko hainbat ahalmenen egikaritzea Gipuzkoako Foru Aldundian eskuordetuz izenpetutako hitzarmena bertan behera uztea.

VII.- KREDITU GEHIGARRI BIDEZKO 3 ZBK.DUN KREDITU ALDAKETA.-

Udal honetako Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.

Idazkari-Kontuhartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Serna zinegotziak (PSOE) galdetzen du ea Euskadi Enparantzako urbanizazio obrarako gehikuntza hau zergatik den. Ea pergola egiteko egindako 10 metroko atzeratzeari dagokiona den edo beste desbiderapenen bategatik den.

Alkateak erantzuten dio alde batetik 10 metroren atzeratzeagatik eta bestalde aparkalekuaren egokitzapenarengatik dela.

Serna zinegotziak galdetzen du baita ere gehikuntzaren ondoriozko guztikoarekin obraren kontrataziorako ahalmena duen organua alkatetza hala plenoa izango litzakeen.

Urkola zinegotziak (EAJ) erantzuten dio esanez galdera horren erantzuna partida honek berak izan zuen aurreko aldaketa egiterakoan eman zitzaiola. Gehitzen du obra hasi zenean zeukan aurrekontuarekin alkatetzaren ahalmena zela bere kontratazioa eta gerora eta alderdi guztien adostasunarekin gehikuntza batzuk egitea erabaki zela. Esaten du baita ere partida bera baldin bada ere bi obra direla, eta gaur hitzegiten ari garena aparkalekuarena dela eta ez plaza bera. Eta esaten du baita ere plazaren urbanizazioari dagokionean bi lehiaketa egin zirela, bat pergolari dagokiona eta bestea plazaren zorua bere, eta bi kasuetan haiserako kopuruen arabera, alkatetzaren ahalmenekoak zirela. Gehitzen du gehikuntzekin ez litzakela alkatetzaren ahalmeneko izango baina gehikuntza hauek gerora erabaki zirela eta guztien adostasunarekin. Esaten du baita ere, dena den, lehiaketak alkatetzatik eraman zuen bidea plenotik eraman izan balitz bezalakoxea izan zela.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du ohikoa duten erizpidearekin jarraituz eta aurrekontua eztabaidatzen denean, orokorrean aurrekontuarekin beraien ez adostasuna agertzen badute ere, ados egon ohi izaten direla inbertsioetako kapituluarekin eta beraz kreditu aldaketa honen alde egingo dutela.

Eztabaidatu ondoren, eta guztien adostasunarekin, honako hau

ERABAKI DA

Lehenik.- Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko 3 zbk.dun kreditu aldaketarako espediente onestea, proposamenaren eta ondoko kapituluko laburpenaren arabera:

KREDITU GEHIKUNTZAK

Kapitulua	Izena	Gehikuntzak
VI	Inbertsio errealak	9.000,00 €
VII	Kapital transferentziak	370.600,00 €
GEHIKUNTZAK GUZTIRA		379.600,00 €

FINANTZATZEN DITUZTEN BALIABIDEAK

Kapitulua	Izena	Zenbatekoa
	Sarrera handiagoak:	
I	Zuzeneko zergak	33.500,00 €
II	Zeharkako zergak	5.000,00 €
III	Tasa eta bestelako sarrerak	6.100,00 €
IV	Transferentzia arruntak	84.000,00 €
VI	Inbertsioen besterentze eta hirigintza aprob.	155.000,00 €
VII	Kapital transferentziak	96.000,00 €
GUZTIRA		379.600,00 €

Bigarren.- Jendaurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin-betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

VIII.- ORDENANTZA FISKALEN ALDAKETA.-

Jarraian datorren urterako ordenantza fiskalen aldaketa planteatzen da.

Alkateak esaten du, ogasun batzorde informatzailean hitzegin bezala, proposame-na orokorrean Kontsumo Prezioen Indizearen aldaketaren arabera aldaketan igotzea dela, uraren eta zabor biltzetaren zerbitzuetan izan ezean. Erreferentzi bezala Euskal Au-tonomi Erkidegoan izandako abuztutik abuztura bitarteko aldaketa hartzen da, hau da, %2,3. Esaten du baita ere ura eta zaborbiltzetaren kasuetan, bai Gipuzkoako Ur Kontsor-tziotik bai Sasieta Mankomunitatetik igoera handiagoak planteatzen direla eta udalak ere igoera horiei egokitutako igoerak aplikatzea proposatzen da. Gipuzkoako Ur Kontsorzioa-ren kasuan ur hornidura %8,8 eta finantziaketa kanona %4ko igoerak aurrakusten dira eta Sasieta Mankomunitatearen kasuan urteko udal ekarpena %8,5ean igotzea aurrakusten da.

Gainontzean, honako aldaketak sartzea proposatzen da baita ere:

- Uraren inguruan orain arte ura, estolderia eta azpiegituren finantzaketarako tasa kon-zeptuengatik kobratzen zen eta finantzaketarako azpiegituren tasa kontzeptua kentzea proposatzen da, honen zenbatekoa %80an estolderiara eramanez eta %20ean ur horni-durara. Bestalde nekazar ustiakuntzetarako tarifa sortzea planteatzen da. Tarifa honen kasuan, abiapuntua etxebizitzetako ur horniduraren tarifa izango litzateke eta tarifa hau aplikatzen zaienak estolderiarik ez dutenez ordainduko, kanonari zegokion zenbateko osoa ur hornidurari gahituko litzaioke.

- Mahai eta eserlekuekin herri jabaria okupatzeagatiko kontzeptuan bi tarifa jarriko dira, bat sei hilabete arteko erabilera egiten dutenentzat eta bestea urte bete arteko erabilera egiten dutenentzat. Sei hilabete arteko tarifa metro karratuko 6,26076 eurokoa izango da eta urtebete arteko erabaileragatiko tarifa, metro karratuko 8,34768 eurokoa.

- Kiroletan tasen igoera orokorra KPIaren %2,3koa izango baldin bada ere, hainbat ikas-taroren kasuan, beraiegatik kobratzen den tasa kostuekiko oso atzera gelditu dela kon-sideratuz, %5eko igoerak egitea planteatzen da. Ikastaroak honako hauek dira: igeriketa, igeriketa hobekuntza (haurrak eta helduak), haurdunaldiko igeriketa, aerobik, manteni-mendu soinketa eta adinduen soinketa.

- Errotuluen kasuan, oinarri zergagarria berdefinitu egiten da, tasa hau jabari pribatutik herri jabarira 5 zm. edo gehiago ateratzen den errotuluei aplikatuko zaiela ezarriz. Bestal-de, tarifa, hartutako bolumenaren arabera ezartzen da eta hau m³ko 19,68 eurotakoa izango da.

- Hilerrian intzineratutako gorpuen errautsak hilobiratzeko nitxoak jarri dira eta hilobiratze mota honek dituen kontuen azterketa egin ondoren, hilobiratzen mota hau jasotzen duen tarifa sortzen da. Tarifa hau 63,00 € izatea proposatzen da.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du aurka daudela, beste behin ere K.P.I.ren oso goitik dagoen igoera aplikatzen delako ura eta zaborren kasuan. Eta gehitzen du beraien ustez udal honek kudeatzen dituen zerbitzu guztiak ez daukatela zergatik defizit gabekoak izan beharrik.

Estensoro zinegotziak (EAJ) esaten du batzordean esan zen bezala alde batetik igoera hauek zerbitzu hauek kudeatzen dituzten udalez gaineko erakundeek markatzen dituzten erizpideak jarraitzen dituztela eta horregatik planteatzen direla igoera handiagoak

baina bestetik udalak badituela baita ere errenta txikiak dituztenentzat zergak ordaintzeko laguntzak.

Saldaña zinegotziak (EB-B) esaten du ados dagoela proposamenarekin eta ulertzen duela ura eta zaborren kasuan igoera handiagoak udalez gaineko elkarteek planteatzen ari diren proposamenak ondorioztatutakoak direla eta beraz eztabaida han ematekoa litzakela.

Moreno zinegotziak (PP) esaten du abstenitu egingo dela.

Alkateak hitza eman ondoren jendartetik Joseba Hernandezek esaten du beraiek ez daudela ados K.P.I.ren gainetik dauden igoerekin, ura, zaborra eta kiroldegiko hainbat ikastaroren kasuan gertatzen den bezala.

Guzti honen ondoren, eta Ogasun Batzorde Informatzailearen proposamenez, osoko bilkurak, aldeko 7 botu (EAJ, EB-B), aurkako 3 botu (PSE-EE) eta 3 abstentzioz (PP, Inazio Estensoro, Inazio Barandiaran) honako erabakiak hartzen ditu:

- 1.- Akordio honen azalpenean aipatutako eta bere espedientean aurkitzen diren ordenantza fiskalen aldaketa, hasierako izaeraz onartzea.
- 2.- Akordioa jendaurreko erakustaldian jartzea hogeita hamar lanegunetako denboraldian.
- 3.- Jendaurrean dagoen denboraldian inolako erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, akordioa behin betiko bihurtutzat joko da akordio espreso berri baten beharrik gabe.

IX.- GOIEKIKO ADMINISTRAZIO KONTSEILUAREN OSAKETA.-

Goierriko Ekimena, S.A. -GOIEKI- Goierriko Udalek osatutako Elkarte Anonimoa da eta beraz Goierriko Udaletako zinegotzi guztiak osatzen dute.

Hau honela izanik eta azken udal hauteskunderen ondoren, GOIEKIko administrazio kontseilu berria aukeratzea egokitzen da, eta GOIEKIko estatutoek diotena jarraituz, kontseilu honetako partaidetza hauteskunderen emaitzen arabera izango da alderdi politiko ezberdinen artean. Bestalde alderdi politikoek adostasunera iritsi dira Administrazio Kontseilu honetan alderdi guztiek ordezkatuak egon daitezen.

Hau kontutan izanik, alderdi politiko ezberdinen artean administrazio kontseilua osatzeko zerrenda bat adostu da eta zerrenda hau da gaur Osoko Bilkura honen aurrera ekartzen dena bere onarpenerako.

GOIEKIko administrazio kontseilua osaketa proposamena honako hau da:

<u>ALDERDIA</u>	<u>HAUTATUAK</u>	<u>HERRIA</u>	
EAJ-PNV	Patxi Plazaola Muguruza	BEASAIN	
EAJ-PNV	Patxi Albisu Estensoro	LAZKAO	
EAJ-PNV	Jose Miguel Santamaria Ezeiza	ORDIZIA	BOTURIK

dINDEPENDIENTEA	Bittor Oroz Izagirre	ATAUN	GABE
INDEPENDIENTEA	Jon Intsausti Ugalde	ORMAIZTEGI	BOTURIK GABE
INDEPENDIENTEA	Mikel Areizaga Camara	SEGURA	
INDEPENDIENTEA	Edurne Albizu Ormazabal	ZEGAMA	
PSE	Fernando Boada Gonzalez	BEASAIN	
PSE	Iñaki Dubreuil Churrua	ORDIZIA	
EB/ARALAR	Maialen Galparsoro Odriozola	IDIAZABAL	
EB/ARALAR	Patxi Aierbe Urbiztondo	ZALDIBIA	
EAE/ANV	Xabier Iturrioz Oiarbide	ZEGAMA	
PP	Julio Herreros Serna	BEASAIN	

Bestalde Administrazio Kontseilu hau onartuko duen Batzar Nagusirako udal ordezkaria Patxi Albisu Estensoro, Alkatea, izatea proposatzen da.

Osoko Bilkurak, aho batez, GOIEKiko administrazio kontseilua osatzeko proposatutako zerrenda hau onartu egiten du eta GOIEKIn egingo den Batzar Orokorrerako Lazkaoren ordezkaria Patxi Albisu Estensoro izendatzea erabakitzen du."

X.- P.P.-REN MOZIOA BANDEREN ERABILERARI BURUZ.-

Mozioak honela dio:

"Urriaren 28ko 39/1981 legeak Espainiako bandera eta beste bandera eta entseina batzuen erabilera arautzen du eta honako hau agintzen du:

- Espainiako bandera administrazio orokor, administrazio erakunde autonomiko, probintziako, irlako edo udaletako eraikin eta establezimendu guztietan kanpoan jarrita egon beharko da eta baita barruan lehentasunezko tokian jarrita ere. (3.1. artikulua)
- Estatutuek onartuta bandera propioa duten Autonomia Erkidegoetan, bandera hau Espainikoarekin batera erabiliko da dagokion lurralde esparru horretako eraikin zibil guztietan. (4. artikulua)
- Udaletxe, Foru Aldundi edo beste edozein korporazio publikoek bandera propioa erabiltzen dutenean, Espainiako banderarekin batera egingo dute. (5.artikulua)

Nahiz eta Lege honek jasotzen duen Tokiko xedapenak, Erkidegoko Administrazioko ia eraikin guztietan azken urteotan legea nabarmen ez da bete, eta Udal honetan ere horrelaxe gertatu da.

2007/07/24an Auzitegi Gorenak argi eta garbi adierazi zuen "jarrita egon beharko da" espresioarekin legegileak nabarmendu nahi izan du "Espainiako bandera egunero eta adierazten den toki guztietan jarrita egon beharreko lege betebeharra"

Epaia erabatekoa da adierazten duenean lege mailako arauak bete egin behar dira - ez dira exigitu beharrekoak- denbora pasa ahala eta ez betetzearekin batera , garbi dago

eta Kode Zibilak horrela adierazten du arau bat ez betetzeak ez du esan nahi erabiltzeko ohitura galdu behar denik, ohitura ez bait zaio legeari gailendu behar.

Aurretik adierazitako guztia dela eta, Lazkaoko Udalbatzak ondorengo proposamena onartzen du:

Lazkaoko udaletxeko balkoi nagusian Espainiako bandera jartzea eta baita Udaletxe barruan lehentasunezko tokian, 39/1981 legea betez eta Auzitegi Goreneko erabakia berehala eta modu iraunkorrean aplikatuz, Espainiako Konstituzioaren 4.2 artikulua dioenarekin bat."

Urkola zinegotziak (EAJ) esaten du mozioari ezekoa esango diotela. Eta ezezko hau ondorengo hauetan oinarritzen dutela:

"1.- PP aurkezten duen mozioa, kanpaina bortitz baten parte bat da. Nabarmena da bere intenzionalitatea: hau da, politika esparruan tentsioa eta desestabilizazioa garatzea. Kasu honetan, udal erakundean, eta noski Lazkaoko herrian.

2.- Ikusi dugu – Madrileko Diputatuten Kongresuan aurkeztutako ekimena, zigorrak arduradunen inabilitazioa (alkateena ere...) proposatuaz. Baina bakarrik gelditu zen. Aurka izan zituen beste alderdi demokratiko guztiak. Ondoren, maila goreneko, hainbat ardura-dun politiko ere aurka agertu dira, batez ere, erabilera ez egokiagaitik "banderarekin" gerra eragitea nahi duela.

3.- Bandera bat, bere horretan, objektu bat da. Baina sentimentuak, baloreak, herri baten borondeak bakarrik bihurtzen dute herri baten, nazio baten SIMBOLOAN. Baina imposaketarik gabe, eta noski, indarraren erabilerarik gabe.

4.- Sinbolo honen erabilera demokratikoa egiten dugunok, beti jokatzen dugu beste pertsona guztiengan errespetu osotik, espainiako bandera, zein Seynera, edo barne errepublikar bandera sinbolotzat jotzen dutenak ere.

5.- Herri honen gehiengo absoluto batek, Ikurriña dauka bere identitate IKUR BEZELA, nazio identitatearena, hizkuntzarena, tradizioarena..... Hori bai, inoiz bere defentsa biolentzia edo indarra erabili gabe, beti pakearen erabileratik.

6.- Guk, besteengan beste maioriengan erabiltzen dugun errespetoa, guretzak eskatzen dugu. Guk beste bandera batzuek gurtzen dituztenentzat daukagun errespetua eskatzen dugu Ikurrinarentzat. Azkenik, zentzu honetan esan nahi dugu, ekintza guztiak elkarbizitarrako bultzatuak izan behar direla eta ez gerrarako, eta are gutxiago interes partidistentzako."

Bukatzen du esanez probokazioetan ez direla eroriko, eta zentzu honetan, PPren mozioaren aurka bozkatuko dutela.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du ez dela osoko bilkura honi dagokion eztabaida eta ez dagokiola berari. Gaineratzen du legea betetzera derrigortuta dagoenak beteaz beharko lukeela eta ez osoko bilkura hau eta dena den bandera jarrita eogn behar duen ala ez ezbaitezakoan, uste duenez legeak dioena da beste banderak jarrita daude-nean bandera espainiarra ere hasn egon behar duela baina ez duela besterik esaten, eta

iruditzen zaie gai hau osoko bilkurara ekartzearen azken arrazoi bakarra ernegatuaz- tearena dela eta guda politikoa sortzearena herritarrei ukitzen dien politikan sartzeko ar- gudiorik ez daukatenean, osoko bilkura honek interesa daukan politika bakarra azken hau delarik, behintzat horrela izan dela orain artean eta aurrerantzean gustatuko litzaiekela Alderdi Popularrak mozio bat aurkezten duenean Lazkaoko Udalari eta bere bizilagunei dagozkion gaien ingurukoa izatea gustatuko litzaiekela, eta herritarren bizitza kalitatea hobetzeko izan dadila. Guzti horrengatik Alderdi Sozialistatik mozio honen aurka bozkatu- ko dutela.

Saldaña zinegotziak (EB-B) esaten du mozioaren aurka dagoela mozio zaharkitua delako, 36koaren kiratsa hartzen diotela, eta gaia garbi uzteko iruditzen zaiela beraiek (Alderdi Popularrekoak) Espainiako bandera izenez ezagutzen duten hau beste baten atzetik eta azpian dagoela, hiru kolore zituen baten azpian hain zuzen ere, Espainiako Estatuaren Errepublikak guztiak barne hartzen zituenarena, eta beraientzat (EB-B) espai- niar estatuak izan duen legeko bandera bakarra azken hau dela.

Alkateak hitza eman ondoren, jendartetik Joseba Hernandezek esaten du hemen entzun duen bezala ados daudela Lazkaoren begira lan egin behar dugula. Gaineratzen du konfrontazioa ez dela bidea eta bera (Alderdi Popularreko zinegotzia) bere bizia lazkaon ez duenez egiten, ziurrenera ere lazkaoko errealitatea eta bere hauteslegoa ez dituela eza- gutuko eta gogorarazten diotela bera hemen hauteslagoaren botoen %5a baino gutxiago izanda dagoela, eta egoera demokratiko batean bera ere (alderdi popularreko zinegotzia) ez litzatekela hemen izango. Bukatzen du esanez mozioaren aurka daudela.

Moreno zinegotziak (PP) esaten du beraiek ez dutela esan bandera bat jartzeko baizik eta denak jartzeko, eskatzen den bakarra Legea betetzea dela ez dela gehiago es- katzen. Ez direla hamen esan den bezala ekintza partidistak edo konfrontazio bila ibiltzea.

Gaia zabal eztabaidatu ondoren, bozketan jartzen da eta osoko bilkurak, aldeko botu 1 (PP) eta aurkako 12 botuz (EAJ, PSE-EE, EB-B) mozio hau ez onartzea erabakitzen du.

XI.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Serna zinegotziak (PSE-EE) gaurko osoko bilkuraren ordu aldaketarena zergaitik izan den galdetzen du.

Alkateak erantzuten dio etorri diren zinegotzi askok konpromiso bat zutela eta eta horrengatik izan dela.

XII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zazpiak hamar gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.